

Bilboko Euskararen Aholku Batzordea

memoria (2016-2020)



Bilboko Euskararen Aholku Batzordea

memoria (2016-2020)



2020ko abendua

1. Sarrera.....	4
2. Euskararen Aholku Batzordea.....	6
3. Euskararen Aholku Batzordeko kideak.....	8
4. Azpibatzerdeak.....	12
5. Aholku Batzordearen Funtzionamendurako Araudia.....	13
6. Gauzatutako jardura nagusiak (2016-2020).....	15
6.1. Batzerde Orokorra.....	15
• Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (ESEP) eta Bilboko Udalean Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana	
• Bilboko gazteen euskararen erabilerari buruzko ikerketa (Eusko Ikaskuntza)	
• Euskaraldia	
• “Hirian ere... lehenengo berba euskaraz” ekimena	
• Biribilko	
6.2. Azpibatzerdeak.....	30
7. Euskararen Aholku Batzordearen jarraipena.....	32

1

Sarrera

Euskara Hizkuntza ofiziala da Euskal Autonomia Erkidegoan, gaztelaniarekin batera; eta ondorioz, herritar guztiek dute euskara eta gaztelania hitzez eta idatziz ezagutzeko eta erabiltzeko eskubidea.

Hori abiapuntutzat hartuta, eta hizkuntza-eskubide horiek Udalaren administrazio-eremuan bermatu ahal izateko, Bilboko Udalak Euskararen Erabilera Normalizatzeko lehen Plana onartu zuen 1990eko hamarkadan. Plan horretan zenbait neurri eta irizpide ezarri ziren, Bilboko Udala apurka-apurka gero eta administrazio elebidunagoa izan zedin eta emandako zerbitzuan herritarren hizkuntza hautuak errespetatu zitezen. Harrezkero, hainbat plan onartu dira, eta gaur egun 2018-2022 plangintzaldirako onartutakoa dago indarrean.

Lehenengo plana martxan jarri zenetik, asko aldatu da euskararen egoera Bilbon, hala herritarren artean nola udal administrazioan. Bilboko Udalaren Euskarako Zuzendariordetzaren helburu nagusia esparru bietan euskara normalizatzea izan da; horretara bideratu ditu bere programak eta zerbitzuak.



Udalerriari begira, bilbotarren hizkuntza-ohituretan eragina duten programak gauzatu dira: euskara erabiltzeko motibazioa eta sentsibilizazioa landuz; euskara ikasteko edota ezagutza sakontzeko baliabideak eskainiz; euskara erabiltzeko espazioak sortuz eta ekimenak antolatuz. Hala bada, ondorioz, udalerrian euskaraz hitz egiten dakitenen kopurua handituz joan da urtez urte.

	1996	2001	2006	2011	2016
Euskaldunak	50.758	53.051	83.354	78.727	97.287
Ia-euskaldunak	82.455	91.204	82.339	96.774	67.004
Erdaldunak	219.982	198.127	177.379	166.869	171.441
Guztira	353.195	342.382	343.072	342.370	335.732

Iturria: Eustat

Horrez gain, Udalaren barruko jardunari begira, hauek izan dira urteotako lehentasunak: herritarrei zerbitzua euskaraz ematea; Udalaren eguneroko lana euskaraz ere egin ahal izatea; Udalaren sailen arteko harremanak eta beste erakundeekikoak, apurka-apurka, euskaraz izan daitezen bultzatzea.

Ildo horretatik, azpimarratzekoa da Bilboko Udalean azken urteotan langileak euskalduntzeko egin den ahalegina. Aurrerapenak egin dira langileen prestakuntzan eta trebakuntzan. Plangintzaldi honen hasieran, langileen % 49k derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna dute ezarrita eta langileen erdiek egiaztatuta dute euren lanpostuari dagokien hizkuntza eskakizuna, derrigorrezkoa izan edo ez. Beraz, langile ugarik dute euskaraz lan egiteko gaitasuna, maila batean edo bestean.

langile ugarik dute euskaraz lan egiteko gaitasuna, maila batean edo bestean

Euskararen erabilera normalizatzeko prozesuan, lanabes nagusi bi baliatu ditu Udalak: Bilboko Euskara Sustatzeko Ekintza Plana eta Udal Administrazioaren Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana. Bi Plan horiez gainera, 2016an, Bilboko Udalak Euskararen Aholku Batzordea (EAB) sortu zuen, Udalaren hizkuntza-politikan tresna eraginkorra izateko helburuz eta udalerrian euskara biziberritzeko urrats sendoak emateko asmoz.

Euskararen Aholku Batzordea

Bilboko Udalak 2016ko otsailean jarri zuen abian Euskararen Aholku Batzordea. Taldean lan eginez, bizitzaren arlo guztietan euskararen normalizazioa lortzeko xedez sortu zen EAB; kontsultarako eta informazioa emateko organoa izateko helburuz.

bizitzaren arlo guztietan euskararen normalizazioa lortzeko xedez sortu zen EAB

- Hirian euskarazko kulturaren kontsumoa sustatu beharra zegoen, erabilera eta ezagutza bermatuz.
- Ezinbestekoa zen euskaldunen komunitatea indartzea, bertatik bertara aritzeko zein birtualak diren sareak zabaltzeko eta sendotzeko.
- Nahitaez jarri behar zen azpimarra euskararen erakargarritasunean eta modu egokian proiektatu, hizkuntzak espazio nahikoa baduelako hurbiltzen zaizkion guztiei lekua egiteko.

Bilbon euskararen normalizazioaren aldeko lana ez zen berria. 1979tik Udala modu sistematikoan joan da laguntza ematen euskararen sustapenaren aldeko ekimenei. 1985etik aurrera, administrazio-unitate bat eratu zen udal organigraman, bai udalerrian, bai udal administrazioan bertan euskararen normalizazioa sustatzeko helburu berezitua zuena.

Aholku Batzordearen sorrerarekin, ostera, harago joatea erabaki zen: Bilboko Udalaren eta euskararen normalizazioaren alde lan egiten dutenen lankidetza eratzea, baita

gizartean eragina duten entitateekin ere. Lankidetzat sistematizatua eta egituratua, Bilboko hizkuntz politikan baliabideen eragingarritasuna eta optimizazio handiagoa lortze aldera.



Hala bada, Euskararen Aholku Batzordea udal instituzio eta herritar eragileen arteko elkarlana sustatzeko gune bezala planteatu zen: hartara, elkar ezagutzeko eta elkarri aitortza agertzeko, udal erakundearen funtzioamendua eta elkarteen arteko harremanak garatzeko.

Proposamenak eta ekintzak zehazteko baliabidea/tresna Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (ESEP) da. Plan hori Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak diseinatu zuen, eta, momentu horretan, Bilboko Udalak 2014-2017 epealdirako plana onartu zuen (ondoren, 2022ra arte luzatu da).

3

Euskararen Aholku Batzordeko kideak

Organo aholku-emaile honen buru Alkatea dela, Udaleko zinegotziek, erakundeko alderdi politikoetako ordezkariak eta gizarte- eta kultura-arloko zenbait eragilek osatzen dute Batzordea. 2016an abiatu zenean, honako hauek izan ziren batzordekideak:

	ORDEZKARIA
Alkatea-presidentea	Juan Mari ABURTO RIKE
Euskara eta Hezkuntza Saileko zinegotzia-batzordeburuordea	Koldobika NARBAIZA OLASKOAGA
Ekonomia eta Ogasun Saileko zinegotzia	Marta AJURIA ARRIBAS
Kultura Saileko zinegotzia	Nekane ALONSO SANTAMARÍA
Bilbao Ekintza	Xabier OTXANDIANO MARTÍNEZ
EAJ-PNV Udal Taldea	Ainara ARETXABALETA TORRONTEGI
PSOE-PSE Udal Taldea	Inés IBAÑEZ DE MAEZTU
EHBILDU Udal Taldea	Alba FATUARTE GONZÁLEZ
Partido Popular Udal Taldea	Txus SANZ SALAMANCA
UDALBERRI BILBAO EN COMÚN Udal Taldea	Amaia ARENAL VIDORRETA
GOAZEN BILBAO Udal Taldea	Alexander ARAUZO ORTIZ
Euskara eta Hezkuntza Saileko zuzendaria	Jone UNZUETA CRESPO

	ORDEZKARIA
Euskarako zuzendariordea ¹	Mari Jose ARRIETA SAGARNA
Bizkaiko Foru Aldundia. Euskara Zuzendaritza	Ana DE CASTRO RUBALCABA
Eusko Jaurilaritza-Hezkuntza Saila	Jon Simon GARTZIA LEGARRETA
Euskaltzaindia	Andres URRUTIA BADIOLA
Labayru Fundazioa	Jokin GOROZIKA BIDAURRATZAGA
Athletic Club	Genar ANDRINUA KORTABARRIA
Bilbao Dendak elkarte	Olatz ELGEA
Bilboko euskaltegiak	Jon MAGUREGI OLABARRIA
Kazetaria	Libe AGIRRE LLONA
Kultura eragilea	Xabier MONASTERIO TORRE



¹ Aholku Batzordea sortu zeneko lehen urtean, 2016an, Jose Joakin Gallastegi izan zen Bilboko Udaleko Euskarako zuzendariordea.

2019ko ekainaren 15ean, agintaldi berriari eman zitzaion hasiera, eta Batzordearen osaera eguneratzea erabaki zen. 2015eko batzordekideen zerrendatik abiatuta egin ziren izendapen berriak. Honako kide hauek osatzen dute Aholku Batzordea gaur egun:

	ORDEZKARIA
Alkatea-presidentea	Juan Mari ABURTO RIKE
Euskara eta Hezkuntza Saileko zinegotzia-batzordeburuordea	Koldobika NARBAIZA OLASKOAGA
Kultura Saileko zinegotzia	Gonzalo OLABARRIA VILLOTA
Ekonomia eta Ogasuneko Saileko zinegotzia	Marta AJURIA ARRIBAS
Ekonomiaren Garapena, Merkataritza eta Enplegu Saileko zinegotzia	Xabier OTXANDIANO MARTÍNEZ
EAJ-PNV Udal Taldea	Alaitz ORIBE TORRONTEGI
PSOE-PSE Udal Taldea	Nora ABETE GARCÍA
EHBILDU Udal Taldea	Asier GONZALEZ SOREASU
ELKARREKIN PODEMOS Udal Taldea	Ana VIÑALS BLANCO
Partido Popular Udal Taldea	Txus SANZ SALAMANCA
Euskara eta Hezkuntzako zuzendaria	Jone UNZUETA CRESPO
Euskarako zuzendariordea	Mari Jose ARRIETA SAGARNA
Bizkaiko Foru Aldundia. Euskara Zuzendaritza	Xabier ARAUZO URIARTE
Euskaltzaindia	Andres URRUTIA BADIOLA
Labayru Fundazioa	Jokin GOROZIKA BIDAURRATZAGA
Bilboko euskaltegiak	Jon MAGUREGI OLABARRIA
Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila	Jon Simon GARTZIA LEGARRETA
Bilbao Dendak elkarteak	Olatz ELGEA

	ORDEZKARIA
Athletic Club	Iker GOÑI ANTUÑANO
Uztarri Kultur Taldea	Ainara ARETXABALETA TORRONTEGI
Zenbat Gara elkarte	Iñaki LARRAÑAGA JUARISTI
Idazlea eta kultura sustatzailea	Lutxo EGIA DEL RIO
Kazetaria	Goizalde LANDABASO ETCHEVERRY
Idazlea	Miren Agur MEABE PLAZA



4

Azpibatzerordeak

Euskararen Aholku Batzordea sortu zenean, lana hobeto kudeatzeko eta hainbat sektore dinamizatzeko, hiru azpibatzerorde sortu ziren 2016ko ekainean. Azpibatzerorde bakoitzean bozeramaile bat aukeratu zen:

Hedabideak Libe Agirre	Euskaltegiak Jon Maguregi	Euskara-elkarteak Ainara Aretxabaleta
----------------------------------	-------------------------------------	---

Hiru azpibatzerordeek eta Aholku Batzordeak elkarrekin lanean jardun zuten, bide paraleloetan: azpibatzerordeetan egiten ziren ekarpenak eta balorazioak Aholku Batzordera eraman, eta han erabaki zirenak berriro ere bueltan azpibatzerordeetara eramanda.

Urtebetez egin zen lan azpibatzerordeekin (2016ko ekainetik 2017ko ekainera), eta hainbat dinamika eta saio egin ostean (11 bileratan), haiekin lana amaitutzat eman zen: arlokako egoeraren diagnostiko bateratua egin, ikuspegia konpartitu eta aurrera begirako ekintza egingarriak markatu ziren.

Aholku Batzordearen Funtzionamendurako Araudia

Batzordearen funtzionamendu-araudia 2017ko ekainean onartu zen. Araudi horrek Bilboko Euskararen Aholku Batzordea sortu eta arautzea du helburu.

Araudiaren lehen artikuluan zehazten dira Batzordearen **izaera** definitzen duten ezaugarriak. Honako hauek dira batzuk:

izaera

- Aholkurako eta informaziorako organoa izatea.
- Bilbon euskarari bultzada emateko eta normalizatzeko proposamenak egiteko foroa izatea.
- Udalari irizpideak eta gidalerroak emateko eta hizkuntza politikaren arloan ildoak proposatzeko organoa izatea.

Arestian esan bezala. Euskararen Aholku Batzordea Bilbon euskararen alde lan egiteko sortu zen. Hori dela eta, **helburuak** definitzerakoan, 3 arlo bereizi ziren (2. artikulua):

helburuak

- Hizkuntzaren ezagupena eta erabilera areagotzea.
- Herritarren hizkuntza eskubideak bermatzea.
- Euskararen normalkuntzan diharduten pertsonen eta enpresen partaidetza sustatzea.

Bestalde, Batzordearen eraginkortasuna bermatzeko, funtzionamendurako prozedurak ahalik eta modu praktikoenean arautu ziren. Araudiaren 3. artikuluan zerrendatzen dira Batzorde honen **zereginak**; eta, esan bezala, horiek zehazterakoan, Batzordearen eraginkortasunari eman zaio garrantzia:

zereginak

- Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (ESEP) edota Euskararen arloarekin zerikusia duten planak eta programak garatzen laguntzea eta proposamenak egitea.
- Udalerrian hizkuntza-politikan eskumena duen udal sailak urtero argitaratzen dituen laguntzen deialdien oinarriari buruzko iritziak eta aholkuak ematea.
- Udalari informazioa ematea, modu ez loteslean, sektoreko gai bereziei buruz, unean-unean egokien irizten dioten irtenbide eta aukerak proposatuz
- Batzordearen xede den arloan jarduten duten instituzio edo entitate publiko nahiz pribatuen arteko koordinazioa sustatzea.

6

Gauzatutako jarduera nagusiak (2016-2020)

6.1

Batzorde Orokorra

Euskararen Aholku Batzordea abian jarri zenetik, 9 bilera egin ditu Batzorde Orokorrak. Bide horietan honako gai hauek aztertu eta landu dira:

■ Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (ESEP) eta Bilboko Udalean Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana

Bilboko Udalaren Euskarako Zuzendariordetzaren helburu nagusia euskararen erabilera normalizatzea eta sustatzea da, bai udal administrazioaren jardunean, baita udalerrian ere. Helburu nagusi horiek gauzatzeko, lanabes nagusi hauek ditu Udalak:

- Bilboko Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (ESEP).
- Udal Administrazioan Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana.

■ Euskara Sustatzeko Ekintza Plana

Eusko Jaurlaritzako Euskararen Aholku Batzordeak EAErako diseinatutako plan orokorra da, gizartean elebitasun orekatua lortzeko behar diren hizkuntza-politikarako neurriak definitzeko balio duena.

Bilboko Udalak bat egin zuen plan estrategiko honen helburuekin eta 2014-2017 epealdirako ESEP onartu zuen, Bilbon euskararen normalizazioa esparru guztietara zabaltzeko programak eta ekimenak biltzen zituen tresna nagusi gisa, bai barrura begirakoak (Udalaren Erabilera Plana), bai kanpora begirakoak (herritarrentzako programazioa).

Planak lehentasunezko helburuak eta eragin eremuak identifikatu zituen, eta baita neurriak ere, euskaraz bizi nahi duten herritarrei horretarako aukerak eta bermeak eskaini ahal izateko eta botere publikoek babestu beharreko herritar guztien hizkuntza-eskubideak errespetatuak izan daitezen eguneroko jardunean.

euskaraz bizi nahi
duten herritarrei
horretarako aukerak
eskaini ahal izatea

Helburu horiek betetzeko, Bilboko gizarte-bizitzaren esparru askotan eragin beharra zegoen, ezinbestean, eta Udalean ere bai. Beraz, Euskara eta Hezkuntza Sailak euskararen erabilera normalizatzeko bere jarduera udalerrira (kanpoko alderdian) zein udaleko lan-eremura (barneko alderdian) bideratuz planteatu zuen, betiere ESEPen ezarritako hiru **helburu estrategikoak** oinarritzat hartuta:

botere publikoek
babestu beharreko
herritar guztien
hizkuntza-eskubideak
errespetatuak izatea

1. Euskararen jabekuntza: Euskararen jabekuntza edo eskuratze-prozesuan hiru esparru bereiz daitezke: familia bidezko transmisioa, alde batetik; euskarazko irakaskuntza, bestetik; eta, azkenik, helduen euskalduntzea edota euskalduntze-alfabetatzea.

2. Euskararen erabilera: Euskararen erabileran gehien eragiten duten faktoreak honako hauek dira: hiztunen kopurua; hiztunek euskaraz egiteko duten gaitasuna edo erraztasuna eta aukerak; inguruan harreman-sare euskalduna izatea, hots, familian, lagunartean, auzoan, kalean, sarean eta esparru formalagoetan solaskide euskaldunak izatea; eta, azkenik, hizkuntzen arteko oreka eta berdinkidetasun soziala helburu duen kontsentsuak elikatzen duen hizkuntzarekiko atxikimendua.

3. Euskararen elikadura: Hizkuntza eroso eta erraz hitz egin eta erabiliko bada, elikatu egin behar da, euskarazko edukien bidez eta horiek sortzen dituzten euskal eragileen bidez (hedabideak, argitaletxeak, ikastetxeak, zientzia-eragileak, etab.).

Hiru helburu horietan lagungarri izan zitezkeen bi zehar-lerro ere jaso ziren planean:

- Euskararen aldeko motibazioa
- Euskararen zabalkundea.

Arestian esan bezala, Bilboko Udaleko Gobernu Batzordeak 2014an onartu zuen Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (2014-2017). Plan horren indarraldia amaituta, Euskara eta Hezkuntza Sailaren ustez beharrezkoa zen epe hori luzatzea, gauzatutako neurri eta ekintzen bidez lortutako eragina baloratu ahal izateko; eta ondoren plan berri bat egiteko, euskararen erabilera sozialean eragin handiena duten eremuetan lan egiten jarraitzeko aukera emanaz arloari.

Hala bada, kontuan izanik ESEPen helburu estrategikoek indarrean jarraitzen zutela, alegia, ildo berean lanean jarraitu beharra zegoela, Euskara Sustatzeko Ekintza Planaren indarraldia 2022ra arte luzatzea proposatu zuen Euskara eta Hezkuntza Sailak, eta Gobernu Batzordeak onartu egin zuen.

Helburuak lortze aldera, Bilboko Udalak hainbat programa, kanpaina eta jarduera puntual egiten ditu. Programa eta ekintza horiek guztiak helburu estrategiko bakoitzaren arabera eta esparruka daude antolatuta. Ezagunak dira, adibidez, eskoletako umeei zuzenduta Udalak urtero antolatzen dituen *Mikoleta* ipuin-lehiaketa, *Zinea*



euskaraz, aisialdirako *Ikusi eta Ikasi* programa edota gazteengan pentsatuz antolatzen den *Harrapazank* programa. Horiez gain, Udalaren dirulaguntza-lerroak eta euskararen transmisioari eta ikaskuntzari lotuta antolatzen diren kanpainak ere aipa daitezke.



■ Udal Administrazioaren Erabilera Plana

Bilbon orain indarrean dagoen **Plana 2018-2022** epeari dagokio. Aurreko planaren (2013-2017) ebaluazioa egin, eta bertatik datu kuantitatiboak eta kualitatiboak eskuratu ziren. Datu horietatik ondorio batzuk atera ziren, oraingo planaren oinarri direnak.

2019ko apirilaren 17ko Bilboko Udaleko Gobernu Batzordean onartu zen Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana (2018-2022). Erabilera Plana Bilboko Udalaren plan estrategikoa da, Udalean euskara eguneroko funtzionamenduan modu eraginkorrean txertatzeko bidea osatzeko asmotan landu dena.

Udalean euskara
eguneroko
funtzionamenduan
modu eraginkorrean
txertatzeko

Era honetara labor bildu daitezke Erabilera Planaren oinarriak:

Udaleko Sail guztiei eragiten die planak, eta xede nagusia Bilboko Udalean hizkuntza ofizial biak parean egotea da; berdintasun formaletik berdintasun egiazkorantz jotzea.

Honako hauek dira Bilboko Udalaren Erabilera Planaren **gidalerro nagusiak**:

gidalerroak

- Herritarren hizkuntza-eskubideak eta Udalaren obligazioak.
- Borondatetik harago.
- Hizkuntza-prestakuntzaren eta trebakuntzaren garrantzia.
- Itzulpenen kudeaketa
- Dokumentuen estandarizazioa
- Kalitatezko komunikazioa
- Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak
- Hizkuntzen kudeaketa
- Erreferentzia Marko Estandarrarekin (EME) lerrokatua

Ondorengo **helburu nagusi bi** hauek ezarri dira 2018-2022 plangintzaldirako:

1. Euskara zerbitzu-hizkuntza izatea

- Euskararen presentzia eta erabilera indartzea herritarrekiko ahozko eta idatzizko harremanetan, herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzeko.
- Jendaurreko gunetan udalak jarrera proaktiboa erakustea herritarrei, euskara erabiltzera gonbidatzeko.

2. Euskara lan-hizkuntza izatea

- Langileen kudeaketan eta prestakuntzan euskararen erabilera indartzea.
- Ahozko eta idatzizko lan-harremanetan euskararen erabilera areagotzea.
- Hizkuntzen kudeaketa Udaleko kudeaketa-sistema orokorrean integratzea.
- Euskararen erabilera areagotzea herri-administrazioekiko harremanetan.

Honako hau izango da **lan-metodologia**:

lan-metodologia

- Erabilera Planari zabalkundea ematea, komunikazioa eta langileen parte-hartzea indartzea.
- Normalizazioaren Jarraipenerako Batzorde Gidaria eratzea.
- Euskara-koordinatzaileak izendatzea.
- Euskara-taldeak osatzea zuzendaritzetan. Arian-arian, 2019. eta 2021. urteen artean.
- Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak (HOEI) zehaztea.

Testuinguru horretan kokatu behar dira Plan honetan onartu diren antolakuntza-egiturak: Batzorde Gidaria, ENBA eta Euskara-taldeak. Normalizazioaren Jarraipenerako Batzorde Gidariaren zeregina izango da Erabilera Planaren lan-ildoak modu egokian betetzen direla bermatzea eta, era berean, hizkuntzen kudeaketaren gainean proposamenak egitea.

Horrez gain, ENBA Batzordearen jardunak, nagusiki, Udalean euskararen normalizazioa lortze aldera proposatzen diren ekimenekin dauka zerikusia. Batzorde horretan lanpostuei dagozkien arloak jorratu ohi dira: derrigortasun-datak, hizkuntza-eskakizunak eta lanpostu hutsek edo/eta berriek eduki behar dituzten ezaugarriak, Erabilera Planari dagokionez.



Bestalde, Plana garatzeko eta inplementatzeko, ezinbestekotzat jo zen Udaleko zuzendaritza guztietan Euskara-taldeak osatzea, eta horien bidez egitea aurrera, urteko planak adostuz, neurriak inplementatuz eta horien jarraipena eginez. Euskara-talde guztietan egongo da euskara-koordinatzailea.

Lan egiteko modu honek erakundeko arduradunen bultzada eta lankidetzat eskatzen du. Horrenbestez, 2020ko otsailean, erakundeko zuzendari nagusiekin bilera egin zen, Euskararen Erabilera Planaren nondik norakoak azaltzeko.

Zuzendaritza bakoitzean hizkuntza ofizialak nola kudeatu behar diren lantzea, planifikatzea, gauzatzea eta jarraipena egitea da Euskara-taldeen zeregina, betiere herritarrekiko harremanetan euskararen presentzia eta erabilera indartzea helburu nagusi izanda, euskara zerbitzu-hizkuntza eta lan-hizkuntza izan dadin. 2020an abian jarri dira bost Euskara-talde eta hasiera eman zaio beste Euskara-taldeekin egingo den lan-dinamikari.

Bestalde, Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak onartu nahi dira plangintzaldi honetan. Irizpide horiek Udal osorako arau izango dira. Haien helburua zera da: agintari, arduradun eta langile bakoitzak jakitea noiz, zer eta norekin egingo duen euskaraz, gaztelaniaz edo ele bietan.

Irizpideok dokumentu batean jasoko dira eta langile eta arduradun guztiei jakinaraziko zaizkie. Euskara Zuzendariordeak ari da dokumentuaren zirriborroarekin lanean.

Dokumentuak hiru atal nagusi izango ditu:

1. Hizkuntza ofizialak erabiltzeko arau orokorrak

- a. Ahozko komunikazio-harremanak
- b. Idatzizko komunikazio-harremanak
- c. Testu elebidunak edo eleaniztunak

2. Hizkuntza ofizialak itzultzeko irizpideak

3. Jardun-eremuetan hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak

- a. Irudi korporatiboa
- b. Izendapen ofizialak
- c. Hizkuntza-paisaia
- d. Sarrera-eta irteera-erregistroa
- e. Tresna eta aplikazio informatikoak
- f. Ingurune digitala
- g. Argitalpenak
- h. Iragarkiak, publizitatea eta kanpainak
- i. Ekitaldi eta ekintza publikoak
- j. Bilerak
- k. Langileen etengabeko prestakuntza
- l. Dirulaguntzak
- m. Kontratazio administratiboa

■ Bilboko gazteen euskararen erabilerari buruzko ikerketa (Eusko Ikaskuntza)

Eusko Ikaskuntzak gazteen erabilerari buruzko gakoak aztertu zituen 2017an, Bilboko Udalaren laguntzarekin gauzatu zuen ikerketan. Lanari buruzko txostena 2018an burutu zen. Bere izenburua: “Eta gazteak Bilbon euskaraz, zergatik ez?”. Rosa Miren Pagolak eta Idoia Carramiñanak ikerketaren emaitzak aurkeztu zituzten Aholku Batzordeko kideen aurrean.

Ikerketa horren helburua izan zen, besteak beste, Bilboko gazteen euskararekiko esperientziak ezagutzea eta euskararen erabilera sustatzeko gakoak identifikatzea, erabilera handitzeko.

Emaitzek erakutsi zutenaren arabera, gazte gehienak euskaratik urrun sentitzen dira; beraientzat euskara ez dago modan, eskolako hizkuntza da. Ez dute beharrianik ikusten erabiltzeko; gaztelaniarekin nahikoa da komunikatzeko.

Euskara gehiago erabiltzeko gazteek proposamenak aipatu zituzten adituen batzordekideen aurrean: euskara ludikotasunari lotu, erakargarriago egin, prestigiatu, baloratu, erreferenteak proposatu...

Helburua:


Bilboko gazteen
euskararekiko
esperientziak
ezagutzea eta erabilera
sustatzeko gakoak
identifikatzea

Lan hau bilbaoeuskaraz.bilbao.eus web gunean kontsulta daiteke.

Eusko Ikaskuntza

Eta gazteak Bilbon euskaraz, zergatik ez?
Gazteen euskararen erabileraren azterketa Bilbon

2018.02.12



■ Euskaraldia

2018ko ekainaren 25eko Batzorde Orokorrean, Iker Martinez de Lagos Euskaraldiaren dinamizatzaileak dinamikaren nondik norakoak azaldu zizkien batzordekideei: zer den Euskaraldia eta zer egingo zen Bilbon.

2018ko irailean, Bilboko Udalbatzak bat egin zuen Euskaraldiarekin, adierazpen instituzional baten bidez. Horrela, bada, zenbait ekintzatan parte hartu zuen azaroaren 23tik abenduaren 3ra, euskara kalera ateratzeko, euskararen erabilera sustatzeko eta hizkuntza-ohiturak aldatzeko. Jalgi Fundazioak hartu zuen Euskaraldiari egitura juridikoa emateko ardura; eta Udalak herritar guztiak animatu zituen, euren euskara-gaitasunen arabera, Euskaraldian parte hartzera. Ariketa soziala aurrera eramateko, euskalgintzako eragileek eta Udalak hilabeteetan jardun zuten elkarlanean.



Euskaraldiaren ekimena amaituta, 2018ko abenduaren 28an, Iker Martinez de Lagosek eta Julen Orbeak, Euskaraldiaren dinamizatzailleek, ekimenaren balorazioa egin zuten Batzorde Orokorrean. Honako datu hauek eman zituzten:

- 17.306 lagunek hartu zuten parte (10.523 Ahobizi —%61— eta 6.783 Belarri-prest —%39—), 322 lagunek formazioa jaso dute, 22 formakuntza-saio, auzoetan 13 batzorde, 17 aurkezpen.
- Aurrera begirako hiru erronka nagusi zehaztu ziren:
 - Euskaltzaleen sarea indartu.
 - Sektoreen arteko harremana landu.
 - Entitateen barruan ere lan egin.

Lehen edizioan, ariketa hau bi urterik behin errepikatzea aurreikusi zen. Horregatik, 2020ko azaroaren 20tik abenduaren 4ra bitartean egin zen Euskaraldiaren bigarren edizioa. Biziprest elkarteak izan zen gidaria, eta bi ardatz nagusi izan zituen: batetik, lehen edizioan ahobizi eta belarriprest izan zirenei hizkuntza-ohiturak aldatzen jarraitzeko deia egin zitzaion; eta, bestetik, entitateek euskara gehiago erabiltzeko urratsak eman ziren, ariguneen bidez.

Bilboko hainbat erakundek, elkartek, enpresak eta herritarrek hartu zuten parte ariketa sozialean.

■ “Hirian ere... lehenengo berba euskaraz” ekimena

Euskaraz dakitenek naturaltasunez euskaraz egitera animatzeko asmoz, Bilboko Udalak “Hirian ere...lehenengo berba euskaraz” ekimena jarri zuen abian 2017an.

Bilboko Udalaren helburua bizitzaren arlo guztietan euskararen normalizazioa lortzea izan da beti.



Horren harira, Euskararen Aholku Batzordearen barruan egindako lanaren ondorioz, euskara kalera ateratzeko ekintza batzuk egitea planteatu zen, baita hizkuntzaren eguneroko erabileraren beharra azpimarratzeko zenbait ekintza ere, hain zuzen, gizarte elebiduna lortzeko.

Hortik sortu zen “Hirian ere... lehenengo berba euskaraz...” ekimena. Ekimen horren bitartez, euskararen erakargarritasuna azpimarratu nahi izan da eta modu bizian proiektatu, hizkuntzara hurbiltzen diren guztiei harrera egiteko leku nahikoa baduelako euskarak.

“Hirian ere... lehenengo berba euskaraz...” ekimena zenbait ekintzaren bidez garatu zen. 2017ko San Tomas egunean izan zen lehenengo ekintza: “Santo Tomas azokan ere... lehenengo berba euskaraz” goiburuarekin. Hurrengoa 2018an antolatu zen Bilbao-Bilbao bizikleta-martxaren kariaz, 30. urteurrena bete baitzuen: “Bizikletan ere... lehenengo berba euskaraz” izan zen goiburua. Eta 2019. urtean egin zen hirugarren ekintza: “San Mamesen ere...lehenengo berba euskaraz”.

■ Biribilko


Merkataritza, Bilbon, gizartearen eta ekonomiaren ikuspuntutik, sektorerik garrantzitsuenetarikoa da. Garrantzitsua da Bilbo inbertsiorako hiri erakargarria izatea, enplegua eta aberastasuna sortzen dituen hiria izatea eta nortasunari eustea; eta, hain zuzen ere, nortasunari eusteko, euskarak berebiziko garrantzia du.

Testuinguru horretan sortu zen Biribilko, Bilboko merkataritza hizkuntza-normalizazioa sustatzeko proiektua, honako arrazoiak tarteko zirela:

**Bilboko merkataritza
hizkuntza-
normalizazioa
sustatzeko proiektua**

- Gizarte-mailan euskararen alde egiten ari diren urratsekin bat egiteko; herritarren gehiengoaren euskara sustatzearen aldeko jarrerari egoki erantzuteko, betiere, Bilboko merkataritzaren egoeratik abiatuta eta errealitate horren ezaugarriak kontuan izanik.
- Jarduera komertzialaren eta euskararen sustapenaren artean dagoen lotura nabarmendu eta indartzeko (eskainitako zerbitzua hobetzeko baliabidea da euskara).
- Euskara bertako kultur izaeraren ezaugarri izanik, jarduera komertzialean gehiago/hobeto txertatzeko (gertutasun soziokulturala areagotu).

Egitasmoaren sustatzailea Bilboko Udala da, Euskara eta Hezkuntza Sailaren bidez, Bilbao Ekintzaren laguntzaz eta Siadeco Ikerketa Elkartearen aholkularitza eta kudeaketa teknikoarekin. Horiez gain, honako laguntzaile eta babesleak ditu: BilbaoDendak, HABE, Bilboko euskaltegi homologatuak eta Bilboko auzoetako merkatarien elkarteak.



Biribilko
Bilbo Komertziala

Biribilkoren helburua da, batetik, euskara merkataritza-jardueraren errentagarritasun faktore bihurtzea, eta, bestetik, tokiko izaera soziokulturala merkataritza-sektorean hobeto integratu eta bereizteko baliatzea. Horretarako, honako **funtzionamendu-irizpideak** ezarri ziren:

- Euskara sustatzeko ekintzak gauzatzea Bilboko merkataritzaren berezko ezaugarriak kontuan harturik (neurriko proiektua).
- Euskara komunikazio komertziala hobetzeko tresna eraginkorra bilakatzea.
- Euskararen alderdi efektibo eta afektiboa modu orekatuan artikulatzea.
- Sektoreak euskara bere egitea.

Azken batean, honako hauek dira Biribilko markaren **ezaugarriak**:

- Errentagarritasun plus bat da.
- Bateratzailea da: euskara eta merkataritza.
- Komertzioa da.
- Komunikazioa da.
- Etorkizuna da.
- Bilbo hirikoa da.

Hona hemen Biribilkok gauzatutako **zenbait ekintza**:

1. Biribilko ikastaroak: Bilboko merkataritza establezimenduei eskainitako euskara ikastaro bereziak dira.

- Ikasturte osoko ikastaroak dira, guztira 90 klase-ordukoak, eta modu presentzialean ematen dira, Bilboko auzoetako euskaltegi homologatuetan.
- Ikastaroak antolatu diren 11 edizioetan, 1.731 matrikula egin dira.

2. Euskararen Txanda: Egitasmo honen xedea da, batetik, bezeroek errazago identifikatzea arreta euskaraz eman dezaketen establezimenduak eta, bestetik, merkataria eta bezero euskaldunen arteko harremanetan euskararen erabilera sustatzea.

- Egitasmo honetan parte hartu ahal izateko, establezimendu batek dituen langileen %50ek, gutxienez, euskaldunak izan behar dute (bezeroari arreta euskaraz egiteko gaitasuna dutenak)
- Establezimendu horiei, ageriko euskarri baten bidez identifikatzeko aukera eskaintzen zaie: Euskararen Txanda ikurra (kanpora begirako eranskailua, barruan ipintzeko peana).
- 2020an, 275 establezimendu izan dira egitasmoarekin bat egin dutenak.

3. Biribilkoren web orria (www.biribilko.eus):

- Euskara ikasi eta erabiltzeko dauden online baliabideak agertzen dira eta eskuragarri daude: itzultzaile automatikoak, hiztegiak, autoikaskuntza...
- Ageriko euskarri idatzietan euskararen erabilera sustatzeko baliabideak eskaintzen dira: kartelak, hiztegiak, oinarrizko elkarriketak
- Bilbon euskararen alde urratsak eman dituzten establezimenduak banan-banan identifikatu eta haien zabalpena egiteko informazioa agertzen da: zerbitzua euskaraz eskain dezaketenak, Biribilko ikastaroetara joandakoak...
- Euskararekiko sentsibilizazioa areagotzeko, Bilboko merkatariekin egindako ikus-entzunezkoak: zerbitzua hobetzeko eta bezeroak erakarri eta fidelizatzeko euskarak duen garrantziaren inguruko lekukotzak erakutsiz (www.biribilko.eus/eu/comercios.php)

4. Euskararen alde egindako ahalegina edo erakutsitako konpromisoa aitortu eta erabilera sustatzeko, merkatarien kolektibo jakin batzuei doako zerbitzuak eskaintzen zaizkie:

- Doako itzulpen zerbitzua: ageriko idazkietan euskararen presentzia sustatzeko
- Jarduera adarren arabera hiztegi komertzialen doako edizioa eta banaketa.

5. Hizkuntza paisaia idatzian, euskararen gutxieneko presentzia errazteko euskarrien doako banaketa orokorra egin da: Zabalik-ltxita txarteltxoa diseinatu eta banatu da. Guztira, 3.215 establezimenduk jaso dute euskarri hori.

6. Bilboko merkataritzari zuzendutako aurrez aurreko inkesta egiten da aldian-aldian, Biribilko datu-basea sortu eta eguneratzeko.

- Funtsezko tresna da Biribilko egitasmoaren komunikaziorako eta ekimenak planifikatzeko. Datu-base honetan, Bilboko establezimenduei buruzko hainbat datu biltzen dira.

- 2019an, 3.491 establezimenduk osatzen dute datu-base hau.

7. Euskaraldiaren 2018 eta 2020ko edizioetan, ekimenaren eta izen-emateko kanpainaren difusiorako laguntza eman da: Biribilko datu basea osatzen duten establezimenduei posta elektronikoko bidezko komunikazioa bidali zaie; Biribilkoren web orriaren bitartez, Euskaraldiari buruzko informazioa zabaltzeko da.

6.2

Azpibatzerdeak

Azpibatzerdeen bilerak Euskara eta Hezkuntza Saileko zinegotzi eta zuzendariaren gidaritzapean egin ziren. Azpibatzerde bakoitzeko kideekin antolatu ziren bileren **helburua** hirukoitza zen:

helburuak

- Sektorearen diagnostikoa egitea.
- Ikuspegia konpartitzea.
- Ekintza egingarriak zehaztea.

Proposatu ziren ekintza asko zeharkakoak izan ziren; hau da, azpibatzerde batean baino gehiagotan agertu ziren.

Honako hauek izan ziren, hain zuzen ere, azpibatzerde batean baino gehiagotan agertu ziren **ekintzak**:

ekintzak

- Etorkin, guraso, merkatari eta talde jakin batzuentzako baliabideak sortzea.
- Baliabideak: webgunea, sare sozialak, euskarazko mapa eta agenda...
- Hizkuntza-paisaia euskara zabaltzea.
- Gazteentzako ekintza gehiago eskaintzea (aisialdia, kirolak, musika...).
- Euskarazko erreferenteak zabaltzea.
- Kultura arloko ekintzak sustatzea.
- *Lehenengo hitzak euskaraz* ekimena bideratzea.

Azpibatzerdeetan egindako lanaren berri eman zen Aholku Batzordeak 2017ko azaroan egin zuen bileran, eta aztertu eta beharrezkoak ziren ekarpenak egin ziren. Azpibatzerdeetan parte hartu zuen jendearen interesari esker, lana emankorra izan zen.

Denon ekarpenekin osatutako diagnostiko bateratuarekin amaitutzat eman zen hiru azpibatzerdeekin egindako hausnarketa-fasea.

Euskararen Aholku Batzordearen jarraipena

Euskararen Aholku Batzordea tresna eraginkorra izateko helburuz jarri zen abian, duela 4 urte; herri-administrazio eta gizarte-eragileen artean hizkuntza-politika bultzatzeko asmoz. Bilbo hiriarentzat eta euskararentzat pausu handia izan zen, erakundeetan zein jendartean normalizazioa lortzeko bidean.

Egia da, hainbat eragilek urteetan egindako lanari esker, Bilbo hirian euskaraz bizitzeko baldintzak hobetu direla. Gainera, euskaldun-kopuruak gora egin du, eta hori ezinbestekoa da euskararen biziberritzean aurrera egiten jarraitzeko. Hala eta guztiz, ezagupena ez dator bat erabilerarekin; nahiz eta hiztunen kopurua inoiz baino altuagoa izan, euskararen erabilera ez da neurri berean hazi. Lana egin behar da euskararen ezagutza eta erabileraren arteko aldea erabileraren mesedetan irabazteko. Azken batean, Bilbon euskara hizkuntza bizia izatea erdietsi behar dugu.

Udalaren Erabilera Planari dagokionez, hurrengo urteetarako aurreikusten diren erronkei jarraipena egin beharko die Batzorde honek. Garrantzitsuak dira, besteak beste, hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak onartu eta erakunde osoan inplementatzeko Udalak egingo duen ahalegina, eta baita, horrez gain, sailetako Euskara-taldeek urteko planetan onartutako neurrien jarraipena egitea ere, Udalak euskararen erabilera normalizatzeko prozesuan aurrera egin dezan.

Halaber, Bilbon euskara biziberritzeko aurrerapausoak egin diren arren, aurrerantzean ere euskarazko kulturaren kontsumoa sustatzeko eta euskaldunen komunitatea indartzeko lanean jarraitu behar du Aholku Batzorde honek, erabilera eta ezagutza bermatuz, ESEPen bidez.





Bilbao

UDALA
AYUNTAMIENTO